

Elgoibar 1331. zenb.
XXXI. urtea - 2024/06/07



Antzokitik plazara



G R E M I O N E N G I D A



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando la Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Urzunzo, 8
943 740 512
Fax: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,82€
hilean

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusia.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus




instagram.com/barrenaldizkaria

Alex Segade

Kazetaria

Oso gaztea izatea kirolean



"Bartzelonako taldeak, adibidez, egoera ekonomikoak bultzatuta, jokalaria gazte asko jarri ditu jokatzen azkeneko urteetan"

Kirol munduan, kirol profesionalean esan nahi dut, gero eta normalagoa da kirolari oso gazteak ikustea. Onura baino kalte gehiago dituela pentsarazi dit horrek. Moto lasterketetan Pedro Acosta daukagu, 19 urterekin MotoGPn debutatuta; emakumezkoen tenisean, Mirra Andreyeva, pasa den urtean 16 urterekin egin zuen debuta ranking profesionalean; futbolean, Lamine Yamalek ere 16 urterekin hasi du bere ibilbide profesionala...

Oraingo preparazioa ez da lehengo bezalakoa. Prestakuntza fisikoa adin goiztiarretan lantzen da, teknikoki ere inoiz baino hobeto lantzen da edozein kirol, elikadura miligramora kontrolatzen da eta errekupeazioa fisioterapeutekin primerakoa da. Hori dena batuta, posible da oso gazte egitea profesional. Oso prestatuta datoz jada, eta orokorrean errendimendu ona izaten dute hasieratik. Batzuetan inpaktu mediatikoak zer ikusia baduela esango nuke. Erakargarriagoa da gazte bat ikustea debutatzen edo txapelketa bat irabazten beste edonor baino, eta askotan presioa egiten da horretarako. Bartzelonako taldeak, adibidez, egoera ekonomikoak bultzatuta, jokalaria gazte asko jarri ditu jokatzen azken urteetan.

Ondo iruditzen zait, egia esan. Ondo kudeatzen bada egoera eta ondo egiten badira gauzak, zergatik ez? Egin behar den sakrifizioa eta eskatzen duen ahalegina izugarriak dira, baina ondo eramaten bada eta kirolaria prest badago, aurrera. Arriskua da lesioak izatea edo mentalki azkar erretzea. Ibilbide profesionala oso gazte hasten duten kirolariek uste dut, printzipioz, karrera motzagoa izango dutela erritmo normala eramaten dutenek baino. Logika erabilia horrela izan beharko litzateke. Edozein kirolean 30 urterekin jada "beterano" bat zara, baina 30 urteko pertsona, berez, gaztea da.

Eskerrik asko, Imanol

Eskerrik asko eta txalo handi bat Imanol Arantzamendiri, joan zen ostegunean Herriko Antzokian Musika Eskolak eskainitako koruen kontzerturako ikus-entzunezkoekin egin zuen lanagatik: musikari eta abeslariz gainezka egon zen Herriko Antzokiko oholtza maiatzaren 30ean. Kontzertu alai, koloretsua eta emozioz betetako horietako bat izan zen.

Filmetako musikaz gozatu genuen, ikasleek zein irakasleek, baita bertara hurbildu zirenek ere. Abesti bakoitza bere ikus-entzunezko muntaiaz lagunduta zetorren. Lan honi esker, kolorea eta bizia hartu zuten abestiek. Hori guztia Imanol Arantzamendi dantza irakaslearen obra izan zen. Oholtzatik kanpo lan izugarria egin zuen.

Mila esker emandako laguntza guztiagatik, Imanol.

Silvia Hernandez

Eskerrik asko

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, ekainaren 1ean, ospatu genuen Ikastolaren Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei eta baita irakasleei ere. Goizean goiz hasi zen eguna, parte-hartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, eta giro ederrean igaro zen. Eskerrik beroenak parte hartu zenuten guztioi!

Laguntzaileak: Garate jantzi-denda, G&M jantzi-denda, Ikus optika, Iriondo Kirolak, Garitaonandia farmazia, Bizkor bizikletak, Gertu fisioterapia, Iruñe Arriola Farmazia, Ecnarro, CD Elgoibar, Alire estetika, Euskaltel, Farmazabal, Barrenetxea Farmazia, Jose Antonio ile-apaindegia, Kaia Taberna, Mapfre, Pitxintxu, Kala lora-denda, Uzuri optika, Barrutia optika, Amagoia gozoki-denda, Mekanosa, Idama ile-apaindegia, Saltoki, Agurtzane ile-apaindegia, Estanco Pepe, Pilon, Alkorta, Xarlem, Deuko Izarra, Errotonda okindegia, Elgoibarko Kirol Patronatua, Sumipesca, Surya, Kutxabank, Bacalaos Alcorta, Belaustegi, Dislegi, Jone Beitia, Sigma, Aramburu bitxi-denda, Fisioterapia Ainhua, Doña Mercedes, Eizaguirre okindegia, Jasone Osoro, Ipintza, Magi Bitxiak, Sare fisioterapia, Gloria okindegia, Sara jantzi-denda, Bankoa, Zuria, Salento, Noa ile-apaindegia, Jon Gurrutxaga, Elgoibarko Udal Liburutegia, Rakel de la Arada, Karkizano.

Ikastola eguneko batzordea

Zorionak arriolarrei

Arriola ahizpek podiumetik jaitsi gabe jarraitzen dute. Duela gutxi Donostian hirugarren egin ostean, igandean Bilboko enpresa lasterketa irabazi zuten, bigarren aldiz, iaz ere txapeldunak izan baitziren. Urteak azkar pasatzen dira, baina hauek are azkarrago doaz. Zorionak!

I.Z.

Herribusaren zerbitzua zabaltzea guztion lorpena da

Pozik gaude jakiteagatik udal gobernua Herribusaren zerbitzua herriko auzo gehiagotara zabalduko duela; gure lanaren eta aldarrikapenen iraunkortasunak bere fruituak ematen dituela berresten digu. Izan ere, memoria pixka bat egiten badugu, ikusiko dugu gure auzoetako mugikortasun-beharrei erantzun zien izaera soziala eta solidarioa izango zuten Herribus bat sortzeari ekin genionetik, tokiko gobernua erantzuna negatiboa izan dela beti orain arte, edo, nahi bada, murriztailea.

1. 2021eko martxoan, oposiziotik zerbitzu sortu berriaren jarraipena eskatzen genuen bitartean, EAJ-PNVk zerbitzuaren iraupena Urazandiko igogailuen inaugurazioarekin lotu zuen.
2. Urte horretan bertan, Errotaberriko igogailuaren lanak amaitu arte atzeratu zuten Herribus zerbitzuaren amaiera, eta, azkenean, zerbitzua aurreko legegintzaldiaren amaierara arte lizitatzea erabaki zuten. Arrazoia eman ziguten zerbitzua denboran luzatzean, baina beste auzo batzuetara zabaltzeari uko egin zioten guk hori eskatu arren.
3. Legegintzaldi honen hasieran, 2024ko udal publikoa zabaltzea gure ildo nagusietako bat izan zen berriro ere, gobernu taldeari planteatu geniona; gobernu-taldeak, berriz, uko egin zion lantzeari.
4. Azkenik, joan den astean prentsaren bidez jakin genuen Herribusa orain arte iristen ez zen hirigunetik urrun dauden auzo eta gunetara iritsiko dela.

Beraz, esandakoa, poztu egiten gaitu Udal Gobernua Herribusa garatzeko errezeloak eta zerbitzua bertan behera uzteko tentazioak baztertu izanak. Hala ere, EH Bildutik uste dugu oraindik ere beharrezkoa dela herritarren parte-hartzea sustatzea zerbitzua hobetzeko eta optimizatzeke, bai ibilbideen eta irisgarritasunaren garapenean, bai finantzaketaren gaian.

EH Bildu

Iazkoaren errepassoa egin eta 2024an egiten ari direna azaldu die Elgoibarko Izarrak bazkideei



Elgoibarko Izarrak batzar orokorra egin zuen maiatzaren 30ean, 2023an egindakoa ikusi eta 2024an egiten dihardutena azaltzeko. Iazkoari lotutako lau ideia nagusi azpimarratu zituzten:

- Elgoibarko Izarrak 60 urte bete zituen iaz, baina urteurrenari lotutako ospakizunik ez prestatzea erabaki zuten, lanean zentratzea nahiago zutelako.
- Euskararen Historia Soziala Elgoibarren lana osatu dute Udalak eta Elgoibarko Izarrak elkarlanean (historia soziala). 1950-1990 urteetako euskalgintzaren historia jaso dute eta historia horretako protagonistei esker ona azaldu diete.

■ Atxutxiamaikari dagokionez, gero eta ekintza gehiago antolatzen eta egiten dihardute herriko elkarte-eragileekin batera.

■ BARRENI dagokionez, berriz, herritik bailarako ibilbidea aztertzen ari gara, poliki-poliki bada ere.

Aurtengoari dagokionez, urteroko dinamika eta ekintzekin jarraituko du Elgoibarko Izarrak, bi helburu nagusi betetzeko asmoarekin: Elgoibartarren artean euskalduntasuna sustatzea eta Elgoibarren euskaraz bizitzeko aukerak eta espazioak ugaritzea.

Piriniotara bidaiara antolatu du Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak

Uztailaren 1etik 4ra Tena Bailarara bidaiara antolatu du Jubilatuen Biltokiak. Hiru gau egingo dituzte Panticosako balnearioan pentsio osoan, eta zirkuitu termala barne izango dute. Handik Panticosako pasarelak bisitatuko dituzte, Artousteko trena hartuko dute eta Jaca eta Pau bisitatzeko gida turistikoak izango dituzte. Autobusez egingo dute joan-

etorria. Pertsonako 370 eurokoa da prezioa, logela partekatuan. Izena emateko, biltokira joan behar da.

Horrez gain, ekainaren 14an toka eta igel jokoa egingo dituzte 11:00etan Maalan, eta Mus, Tute, Briska eta Txintxon karta jokoen finalak jokatuko dituzte biltokian bertan, 12:00etatik aurrera.

Odola emateko txanda hartzeko webgunea sortu dute

Hilean behin egiten dituzte odol-ateratzeak Elgoibarren, barikuetan, eta boluntarioek telefono bidez hartzen dute odola emateko txanda, 623 328 408 telefono zenbakira deituta edo whatsapp idatzita. Aukera horrek bere horretan jarraituko du, baina aurrerantzean *gotatanta.eus* webgunean ere hartu ahal izango da txanda. Elgoibarren ekainaren 14an egingo dute hurrengo odol ateratzea.

24/7 plataforma urrian itzuliko da mobilizazioetara

Elgoibarko anbulatorioan osasun-arreta publikoa asteko zazpi egunetako 24 orduetan berreskuratzeko lan egiten duen 24/7 Plataformak ez du mobilizaziorik egingo udako hilabeteetan. Urriaren 30ean ekingo diote jardunari, eta anbulategi aurreko kontzentrazioaz gain, egun horretan batzarra egingo dute, 10:30ean.

Zailtasunak, Santa Ana berritzeko obretan



Erretila berria egin, egoera txarrean dauden egurrak aldatu eta beste lan osagarriren bat zituzten egitekoak, baina teilak kendu dituztenean, teilapeko taula sitsak janda eta gapiriotako batzuk hondatuta daudela ikusi dute. Beraz, Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistiko Saileko arkitektoek aurreikusitako lanak konplikatu egin dira.

Teilapeko taula eta egoera txarrean dauden gapirioak aldatzeak aurrekontua garestitu du, eta horrek obra geldiarazi, proiektu berria idatzi eta exekuzio proiektua lehiaketa publikora ateratzera behartu du Udala. Momentuan teilak kenduta dituzte Egurkikoeak eta sakristiako teilatua bukatzen ari dira, hor ez dutelako arazorik izan aurreikusitako lanak amaitzeko, baina gainerakoan etena egingo dute. Dena atzeratzea ekarriko du horrek, eta beraz, litekeena da santanetarako ez amaitzea. (👊 Jon Urbietta)

Goazen karaokean dantza eta kantuan egiteko aukera, bihar, Mendaron

Goazen telesailleko aktoreak herriz herri dabilta telesailleko abesti ezagunenak abestu eta dantzatzeko, eta bihar, Mendarora iritsiko dira *Goazen karaokea* ikuskizunarekin. 18:00etan izango da saioa, ikastolako jolastokian. 60 minutu inguruko ikuskizuna da Pausokak ekoiztutako hau eta 5 eta 14 urte bitartekoei dago zuzenduta.

Arkeologiari buruzko zikloko hirugarren hitzaldia izango dute gaur Mendaron



EHUK, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatutako arkeologiari buruzko hitzaldi-zikloaren barruan, hirugarren ata azken saioa izango dute gaur Mendaron. Adriana Soto EHUKo ikertzaileak emango du hitzaldia, gazteleraz, eta hauxe du izenburua: *Quo vadis? Las últimas sociedades cazadoras-recolectoras en la encrucijada vasca*. Udaletxeko udalbatza aretoan izango da, 19:00etan hasita.

'Mendaro dantzan' ikuskizuna emango dute gaur Kaxa taldekoek

Kaxa taldekoek 'Mendaro dantzan' ikuskizuna prestatu dute. Ikasturtean zehar ikasitakoa jendeaurrean erakusteko aukera izango dute dantza garaikideko ikasleek. 20:30ean izango da, frontoian. Guztira, 42 ikaslek parte hartuko dute, adinka. Talde bakoitzak lau dantza egingo ditu eta ordubete inguruko saioa izango da.

Mahai-jokoen jardunaldia eta Catan txapelketa, domekan, Mendaron

Eibarko Odisea Elkarteak mahai-jokoen jardunaldia antolatu du hilaren 9rako Mendaron, Udalaren laguntzarekin. Goizez, 10:30etik 14:00ak arte izango da mahai-jokoetara jolasteko aukera, frontoian, eta arratsaldean, 16:00etatik 19:30era. Jardunaldi horren baitan, Catan mahai-jokoko txapelketa ere egingo dute.

Europako Parlamentua osatzeko hauteskundeetan parte hartzera deituta daude herritarrak domekan, ekainaren 9an

Europako Parlamenturako hauteskundeak egingo dira domekan, eta euskal herritarrei besteak baino urrunagoko hauteskundeak iruditzen zaizkien errezeloarekin eta urtebeteko epean laugarren hauteskundeak izateak sortzen duen nekea igarrita, parte hartzera deitu dituzte alderdi politikoek herritarrak, oso hauteskunde

garrantzitsuak direla gogorarazita. Elgoibarren, hauteskunde kanpainako bi ekitaldi egin ziren joan zen astean: eguenean, EAJrena, eta barikuan, EH Bildurena. 09:00etan zabalduko dituzte domekan hauteslekuak. Elgoibarren, 8.557 lagun daude botoa ematera deituta, eta Mendaron, berriz, 1.434.

Mundura irekitako Europa bakegile baten alde egin nahi du EAJK



Faxismoari eta militarismoari atea ixtera deitu du EHBilduk



Euzkadi Buru Batzarreko presidente Andoni Ortuzarrek, EAJren eta CEUS koalizioaren zerrendaburu Oihane Agirregoitiak eta Aitana Agirre Gipuzkoako hautagaiak hartu zuten parte eguenean EAJk Elgoibarren egin zuen kanpainako ekitaldian, baina horiez gain, alderdi jeltzaleko aurpegi ezagun ugari gerturatu ziren. Hizlariak esan zuten Europa demokratikoago eta bidezkoago baten alde egingo dutela. "Estatuen presiotik askatuko den Europa bat" nahi du EAJk, "mundura irekia, bakegilea eta giza garapenaren eragile izango dena". Horren harira, Ortuzarrek esan zuen Txina eta AEBekin lehiatu ahal izango den "Europa oparoa" nahi dutela, ondoren aberastasun hori Europako hiritarren artean ondo banatzeko. "Europa munduan askatasun- eta demokrazia-mailarik handiena eskaintzen duen lurraldea da gaur. Ezin dugu horretan atzera egin: alderantziz, aurrera begiratu behar dugu eta eredugarri izan mundu osoarentzat".

Europako hauteskundeetarako kanpainako ekitaldia egin zuen barikuan EH Bilduk Elgoibarren, Nerea Kortajarena eta Xabi Astigarraga legebiltzarkideak gonbidatuta. EH Bilduri botoa emateak Euskal Herriak eta estaturik gabeko beste nazio batzuek dituzten eskubideak defendatzeko balio duela azpimarratu zuten bi legebiltzarkideek, bai eta "faxismoari eta militarismoari atea ixteko" ere. Gogora ekarri zuten Europan erabakitzen diren politikek zuzenean eragiten dietela herritarrei eguneroko arlo askotan, besteak beste, hipoteketan aplikatzen diren interes tipoetan edo nekazaritza eta ingurumenarekin lotutako politketan. *Orain Errepublikak* koalizioaren baitan aurkeztu da EHBildu hauteskundeetarako. "Espainiako Estatuko beste alderdi ezkertiar eta independentistekin joateak Euskal Herriaren ahotsa Europan ozenago entzunarazteko balioko digu", esan zuten.

Banatu dituzte Txankakuaren Ginkanako sariak



Elgoibarren erosteak saria du izeneko ginkanaren barruan 5.000 euro banatu ditu Txankakua merkatarik elkartek Elgoibarren, erosketa-baleetan. Joan zen barikuan egin zuten zozketa eta eguaztenean sari-banaketa ekitaldia. Guztira, 1.000 euroko sari bat eta 200 euroko hogeitaz sari banatu dituzte. Ane Astigarragak irabazi du sari nagusia, 1.000 eurokoa, eta beste 200 euroko erosketa-

bonoa jaso dutenak honako beste hauek izan dira: Lourdes Aizpurua, Nahia Urbiola, Angela Moreno, Lorea Cid Zabalo, Idoia Azpilikueta, Lourdes Ziorraga, Amparo Estevez, Inma Fernandez, Edurne Galdos, Manoli Arrizabalaga, Pili Iranzo, Nora Rodriguez, Arrate Abasolo, Oihana Agirregomezkorta, Isabel Bermejo, Mila Osoro, Marga Gurrutxaga, Maria Garcia Ruiz, Arantzazu Zabala eta Ivan Barrenechea.

Aparkalekuen inguruko ordenantza berrituko du Elgoibarko Udalak

Aparkalekuak arautzen dituen ordenantza "egungo beharretara" egokitu nahi du Elgoibarko Udalak, baina zehaztu dute aurrerantzean ere TAO sistema doakoa izango dela. Zehaztu dutenez, ordenantza berrirako hainbat aukera aurreikusten dituzte, hala nola ordutegi-muga desberdina duten eremuak seinaleztatzea, jarduera ekonomikoagatik bereizgarriak emateko aukera, ez-betetzeagatik zehapen-araubidea... Proposamena kontsultatzeko aukera publiko egon da, eta nahi duenak bere iritzia edo iradokizunak aurkeztu ahal ditu partaidetza@elgoibar.eus helbide elektronikora idatzita edo Udaleko Erregistro Orokorreara jota (Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ), Santa Ana kaleko 2. zenbakian).

Garbitasuna bermatu eta aparkalekua zaintzeko zerbitzua, Idotorben

Duela bi urte hasitako bidetik, aurtengo Idotorbe landa-auzorako garbiketa zerbitzua eta aparkalekua kontrolatzeko zerbitzua jarriko ditu Elgoibarko Udalak, ekainaren 1etik irailaren 15era bitarteko. Besteak beste honako hauek zainduko dituztela jakinarazi dute Udaletik: ibilgailua aparkalekuan aparkatzea eta ez zelaietan; parriletan bakarrik egitea; inguruko zuhaitzetako adarrak sua egiteko ez moztea; zaborrak edukiontzietan edo paperontzietan botatzen direla ziurtatzea; txakurdunek beren txakurrak lotuta eramatean dituztela zaintzea; eta herritarrek natura eta ingurunea errespetatzen dituztela eta elkarbizitza-arauak betetzen dituztela kontrolatzea.

Ekaineko bigarren hamabostaldian hasiko dituzte King Kong zubiko bigarren faseko obrak

KingKongzubiko obraren lehen fasea amaitzear dago, eta Udaletik jakinarazi dute ekainaren bigarren hamabostaldian hasiko dutela bigarren fasea. Obra Construcciones Artzamendi S.A. enpresari esleitu diote, 1.004.374,74 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta 14 hilabeteko egikaritze-eparearekin. Injelan SL ingeniarietzak idatzi zuen proiektu osoaren diseinua. Bigarren fase honetan Deba ibaiaren gaineko pasabidea birmoldatu, eskuinaldean sarbide-arrapala bat jarri eta Urazandirako pasabidea berrituko dituzte. N-634 errepidearen gaineko egungo pasabidea eraistea eta ibaiaren gaineko egitura berriarekin bat egitea ere aurreikusten dute.



Aitortza jaso du Elgoibarrek Bienalean, Lanbide Heziketaren 125. urteurrenean



Erreminta Makinaren Azokan aitortza jaso zuen Elgoibarrek, Lanbide Heziketaren 125. urteurrenean. AFMk (Makina-Erreminta Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte) antolatu zuen omenaldia, eta Elgoibarko Udalak 1899ko irailaren 18an, Bernardo Ecenarro irakaslearekin Marrazketa Akademiaren irekiera hitzartu zuenean hartutako erabakia balioetsi zuten. Akademia hura 1916an Arte eta Lanbide Eskola bihurtu zen, Elgoibarren Lanbide Heziketaren hasiera formala ezarriz. Ekitaldian hainbat erakundetako ordezkariak hartu zuten parte, besteak beste, Elgoibarko Udalekoek, Mekakoek, IMHkoek, Makina Erremintaren Museokoek eta Elgoibarko hainbat enpresatakoek.

Elgoibarko Lanbide Heziketaren historian mugarri garrantzitsuak izan dira, hala nola Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutuaren sorrera 1951n, Ikaskuntza Eskolaren sorrera, Eulogio Estarta Fundazioa 1958an, eta Makina-Erremintaren Institutuaren hasiera 1991n.

Aurtengo azokan erreminta makinaren sektoreko 1.500 enpresa baino gehiago bildu dira Bilboko erakustazokan, eta horien artean Elgoibarko eta Mendaroko hainbat enpresek ere erakutsi dituzte beren produktuak. Elgoibarko Udala ere izan zen inaugurazio ekitaldian, Maialen Gurrutxaga alkatea buru zela.



Alvaro Arrizabalaga eta ostiraleko bisitetan parte hartu zuen herritar bat, Gartxot Fidalgo, Agarren.

■ Paleolitora bidaia, Mendaron

Mendaroko ondare arkeologiko eta historikoa ezagutarazteko asmoz, Agarre kobazulora bisitak antolatu dituzte EHUK, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean. Joan zen barikuan egin zituzten estreinako bi bisitak, Alvaro Arrizabala EHUKo irakaslearen eskutik, eta gaur arratsaldean beste aukera bat izango dute interesa agertu duten beste zenbait herritarrek.

✍️ Ainara Argoitia 🗣️ Jabi Leon / EHU

Kilimon bailaran barrura eginda dago Agarre kobazuloa, kilimon errekarren ezkerreko aldera, Agarre baserriko lurretan. Paleolito garaiko aztarnak topatu dituzte bertan urteetako indusketa lanetan, eta itxita dago kobazuloa egun, baina gaur, maiatzak 31, bisita antolatu dute bertara EHUK, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak. Mari Jose Iriarte Ikerbasqueko arkeologia eta paleobotanika irakasleak eta Alvaro Arrizabalaga EHUKo katedradunak eta Historiaurreko Ikerketa Taldeko buruak zuzentzen dituzte indusketa lanak, eta Arrizabalaga bera dute gaur gidari. Kobazuloko atea zabaltzen ari dela azaldu du hiru bat metro ezkererago sedimentuz erdi-itxia dagoen zuloa zela ustez historiaurrean gaur bisitatzekoa dugun kobazulorako sarrera, eta gaur sartuko garen atea leihoa zela orduan. Evaristo Rodriguez espeleologo eta Suharri elkarteko kideak, berriz, zehaztu du, han, antzinako atetik sartuta, bi hartzen hezurdurak topatu zituztela duela zenbait urte, eta horregatik, *Hartzen gela* izenez dela ezaguna galeria hori.

Zabaldu du giltzarrapoa Arrizabalagak, eta sartu dira barrura. Zortzi lagun dira taldean. Lurrazpian 190 metroko sakoneraraino ur poltsa handiak topatu dituzten bailaran egoteko, kobazulo lehorra da Agarre, "Gipuzkoako lehorrenetariko bat, nahiz kobazuloko galeria bat, bukaeran, sifonatu egiten den; Kilimon errekarako urak estaltzen du, alegia". Sarrerako gela ez da handia eta pilatu dira han, nola-hala. Lehen begi-kolpean, bi aho ikusten ditugu: ezkerrekoak galeria labur batera ematen du, indusketa arkeologikoak egiten ari diren gelara, eta eskuinekoak, beheeraka egiten duenak eta luzeagoa bide denak, 2018an labar artea aurkitu zuten lekura eramaten du, baina ez dira han barneratuko, labar artea kontserbatzeko baldintzak zaintzeko. Pantailan erakutsi die irudia Arrizabalagak. Puntu gorrixka batzuk dira, lerro batekin lotuz gero, animalia baten bizkaraldea eta atzeko hanka erakusten dutenak, "seguruena bisonteren batena". "Pigmentu gorria eta ura nahastuta, atzaparrekin eta puntuka marraztea

Grabetaldi eta Solutre aldiko labar artearen ezaugarria da; hau da, ezagutzen dugun labar arte zaharrenetakoaren ezaugarria, duela 18.000-25.000 urteko artearena". Zaharrena entzutearekin batera, herrian duten ondarearen balioaz ohartzen hasi dira bisitariak. Hori da antolatzaileek gaurko bisitarekin bilatzen dutena: ondarea ezagutaraztea eta topatutakoari duen balioa ematea, jendeak zaindu dezan.

Debarroa, aztarnategi oparoz betea

"Debarroan Paleolitoko indusketa oso goiztiarrak ezagutzen dira, ia-ia Europako goiztiarrenak. Ugaztun fosilen inguruan Gipuzkoan dugun lehen aipua Oñatik Aizkirri kobazulokoa da, 1871koa", hasi ditu azalpenak Arrizabalagak. Dio Paleolitoko aztarnaz josita dagoela Debarroa, eta baduela esplikazioa. Ehiztari biltzailea zen garai hartako gizakia, nomada, eta esparru geografiko handietatik mugitzen zen. Paleolitoa bera, baina osoaldi luzea da, gizakiak sortutako lehen kulturarekin hasi (K.a. 2.500.000) eta K. a. 10.000. urte arte hartzen du, eta tarte horretan izoztaroak izan ziren. Denboraldi luzean, gaur Norvegia eta Suedian duten temperatura izan zuten gure arbasoek hemen, eta baldintza haietan gaur baino dezentez hesi handiagoa ziren Pirineoak Iberiar penintsulatik Europa iparraldera bidean, edo alderantziz. Bi pasagune eroso baino ez zituzten garaiko nomadek: bata, Katalunian, baino nahiko estua, eta bestea, Euskal Herrian. "Txinguditik sartzen ziren iberiar penintsulara talde ibiltari haiek, Bidasoa ibaia gurutzatuta. Komeni da zehaztea itsasoaren maila 135 metro baxuago zegoela orduan eta Debatik 14 bat kilometro iparralderago zegoela itsasoa". Eta Pasabide natural horretan, erdi-erdian kokatuta dago gure bailara. "Gipuzkoan aztarnategi arkeologikoak topatu diren kobazuloen koordinatuak mapa batera eramanda, garbi ikusten da gaurko errepide-sare nagusiaren bidea (A-8 eta A-1 errepideek osatzen duten irudia) egiten zutela orduko taldeek", zehaztu du.

Gipuzkoako aztarnategi ezberdinetan topatu dituzten suharri piezak erabiltzen dituzte hipotesi hori arrazoitzeko eta garaiko merkataritza-sarea nondik norakoa izan zitekeen ondorioztatzeko. Oso material preziatua zuten suharria historiaurrean, puska zorrotzetan hausten denez, asko erabiltzen zutelako erreminta sastakatzaile-

moztaileak egiteko nahiz sua egiteko, eta ikusi dute Gipuzkoako aztarnategi arkeologikoetan berreskuratutako suharriak jatorri ezberdina dutela. "Horrek erakusten du suharriz hornitzea nahi zutenean batera edo bestera jotzen zutela, dela Kurtziara (Barrika), Trebiñora Isturitzera, Gaintxurizketara (Irun), Chalossera (Frantzia)..."

Paleolitoko sekuentzia osoa

Euskal Herrian topatu dituzten aztarna zaharrenak Irikaitzen (Zestoa) topatu dituzte eta duela 250.000 urtekoak dira, eta hurrengo datazio zaharrena, duela 230.000 bat urtekoa, Lezetxikin topatutako lehenengo aztarnena da. Debarroa etorrita, Arrizabalagak dio aztarnategi kopuru handia dagoela eta Paleolitoko sekuentzia osoa osa daitekeela gainera. Datazio zaharrenak Deba garaiko aztarnategietakoak dira, eta berrienak, duela 12.000 bat urtekoak (Madaleine aldia), Debabarrenakoak. Mendaron, bereziki hiru aztarnategi dira aipatzekoak, Arrizabalagaren esanetan: Aldatxarren (Garagartzan, mojetako atzetik Santa Kurutzera dagoen bidean), Aizkoltxo eta Agarre. Baina badira gehiago, batzuk lokalizatuta eta beste batzuk ez, "pentsatzekoa delako Kilimon bailara karstikoan izango direla leize gehiago, baina horietako asko sedimentuz goraino beteta". Hain justu ere, ezkutuan dauden kobazuloen bila ari dira Mendaron Suharririk elkartekoak, mendeetan zehar pilatutako lurrik kendu eta balizko aztarnategi arkeologikoetara iristeko ahaleginean.

Etena egin du Arrizabalagak, esateko Euskal Herrian, eta bereziki, Gipuzkoan, kobazuloetako ondare arkeologikoa ezaguna dela oso,



ezagutzen diren ia kobazulo gehienetan egin direlako miaketak, baina gertatzen ari zaiena dela, batetik, kobazuloetatik kanpora, aire librean, kanpalekuak topatzen ari direla, eta bestetik, miatutako kobazulo batzuetan labar artea topatzen ari direla orain, garai batean baino teknika aurreratuagoekin ari direlako egun lanean. "Ni indusketa lanetan hasi nintzenean zientzia fikziotzat ere hartu ezin ziren gauza asko egiten dira gaur. Orain, maiztasun handiarekin eta prezio merkean egiten diren probak pentsaezinak ziren lehen, esaterako karbono 14aren teknika bidez margo baten datazioa egitea, lehen zortzi irudi oso edo gutxienez zortzi gramo ikatz behar zirenean horretarako. Orain, aztarnategi batean bizi zirenak zein espezieetakoak ziren jakiteko ez dugu giza-hezurrik topatu behar DNA froga egiteko; nahikoa da sedimentu zati bat. Beraz, askoz azalera txikiagoak industea nahikoa da informazio gehiago lortzeko".

Labar-artera itzulita esan du 2005. urtea arte, Gipuzkoan, bi lekutan baino ez zutela labar artea topatu: Altxerrin (Aia) 1965an, eta Ekainen (Deba) 1969an, eta 2005etik gaur arte, eta bereziki, 2014tik atzera ia urtero topatu dutela labar-arte kobazuloren batean: Astigarribia (Deba) 2005ean, Praileaitz (Deba) 2006an, Danbolinzulo (Zestoa) 2014an, Erlaitz (Zestoa) 2015ean, Aitzgaizto (Ataun) 2016an,



Arbile (Deba) 2017an eta Agarren (Mendaro) 2018an. "Adierazgarria da. Kobazulo guzti horiek korridore berean daude, eta ziur gaude korridore bereko beste kobazuloak tentu handiagoz aztertzen direnean margo gehiago agertuko direla. Ez, jakina, Ekainen edo Praileaitzen agertu direnen parekoak, horietan agertu diren bezain irudi ikusgarriak topatzeko gaur ezaguna ez den kobazuloren bat aurkitu beharko litzatekeelako, Gipuzkoan dena dagoelako miatuta, katalogatuta eta topografiatuta", nabarmendu du ■

UZTAILEAN ITZULIKO DIRA AGARRERA, INDUSTERA

Zerbait gehiago topatzeko esperantzarekin ekingo diete Agarreko indusketei berriro, uztailean. Aspalditik ezagutzen den aztarnategi arkeologikoa da gaur ikusten ari garena. 1966an aurkitu zuten, eta orduan egin zituzten lehen indusketak. Han aurkitutako piezak hasieran uste zena baino zaharragoak izan zitezkeela iradoki zuen bi hamarraldiren ostean, Joxean Mujika historiaurreko adituak eta 2018an berriro sartu ziren industera. Indusketa aldi oparoa izan zen, eta horren berri eman die Arrizabalagak bisitariei, detaile guztiekin.

Ezkerreko galerian, azkonar batek tunel bat egitean atzera botatako sedimentu artean, Paleolitoko arte higikorreko bi pieza topatu zituzten, Madaleine aldiko azkeneko fasekoak biak: zintzilikario bat eta azagai

bat edo oinaldean grabatuak dituen lantza baten gaineko pieza. 2018an topatu zuten zintzilikario horren oso antzeko beste bat, momentuz dagoen bakarra, Urdazubin, Berroberriako kobazuloan botata topatu zutela zehaztu du Arrizabalagak. Eta egun berean, eskubiko galerian, kobazuloko sarreratik ehun bat metro aurrera eginda, gorritz egindako margo bat topatu zuten, duela 25.000 bat urtekoa izan daitekeena. Animalia baten errepresentazio figuratiboa da. 2018tik iaz arte, baina, "uholdeengatik, koronabirusaren pandemiagatik eta arazo burokratikoengatik", ez dira oso urte oparoak izan emaitzei dagokionean, baina iazko kanpainan, 400 aztarnatik gora topatu zituzten bi metro koadroko azalera eta lanean jarraitzeko nahikoa pizgarri bazaie hori.

DANIEL RUIZ GONZALEZ

Aranzadi zientzia elkarteko arkeologoa

✍️ Ainara Argoitia

“Ez dago herritarrek ondare arkeologikoa ezagutu eta baloratzea baino babes hoberik”



Historia ikasi zuen Dani Ruizek EHU (Bilbo, 1994) eta Historiaurrean Masterra egin ondoren, Izoztaro berantiarretik Holozenorako gizartean izan ziren aldaketa prozesuak ezaugarritu zituen doktorego-tesirako, garai haietako harrizko industria ikertuta. Beka bati esker, EHUko Historiaurreko Ikerketa Talderako aritu zen gero lanean, eta orain, Aranzadi Zientzia Elkartearentzat ari da ikertzen. Zortzi urtean buru-belarri aritu da Aizkoltxoko indusketetan lanean eta maiatzaren 24an 'Ehiztari, biltzaile eta artistak orain dela 15.000 urteko Aizkoltxon' izenburuko hitzaldia eman zuen Mendaron, EHUk, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatutako arkeologiari buruzko hitzaldi-zikloaren baitan.

Suharri elkartekoekin eta Udalarekin batera, hainbat hitzaldi eta bisita antolatu dituzue. Zein asmorekin?

Gure helburu nagusia egiten dugun horren berri ematea da. Historia ikertzen ari gara, eta gure lana dakiguna herriari itzultzen diogunean amaitzen da. Egin beharrekotzat daukagu hori, batetik, ondare publikoarekin ari garelako lanean eta askotan errekurtsio publikoekin gainera, eta bestetik, iruditzen zaigulako ez dagoela ondare hori babesteko bide hoberik. Administrazioak jarri ditzake babes neurriak, baina ez dago herritarrek herriko ondare arkeologikoa ezagutzeko eta baloratzea baino babes hoberik.

Geologiaren ikuspuntutik, Arnoko karstaren mugarririk naturala da Aizkoltxo. Arkeologiaren ikuspuntutik, zertan da berezia Aizkoltxo?

Aizkoltxoko muinoa karstikoa da eta kobazuloz josita dago, baina kobazulo interesgarriena, arkeologiaren ikuspuntutik behintzat, Aizkoltxo izenez ezagutzen dugun aztarnategia da, Goi

Paleolitokoa. 1909an aurkitu zuen L. Sierrak, eta 1927an aztarnategiaren berri eman zuen Jose Migel Barandiaranek, baina aparteko baliorik aitortu gabe. Geroago, laurogeiko hamarkadan, Munibe Arkeologia Taldeko kideek zenbait silex batu zituzten eta Aranzadin eman, eta 2003an, jarduera klandestinoen ebidentziak aurkitu zituztenean, erabaki zuten han indusketa sistematikoak hastea. Bi eremutan jardun gara lanean urteotan Aizkoltxon: batetik, kobazuloan, zundaketa klandestinoak egin zituzten lekuan, eta bestetik, kanpoaldean, sarreratik hamar bat metrora dagoen harpearen babesean. Aurkikuntza ikusgarrienak duela 15.000 bat urtekoak dira eta kanpoaldeko aztarnategian topatu ditugu, oso eremu mugatuan. Hori bai, arkeologiaren praktika ez da sekula aztarnategi osoa industea izan.

Zenbat da aztertutakoa?

Kobazuloa luzea da, baina esku-hartze txiki bat egin da sarreran, furtiboak ibilitako eremuan,

eta kanpoaldean, berriz, bi metro koadro eskasean jardun gara lanean, baina hor topatu dena interes handikoa da. Informazio asko eman digun materiala topatu dugu, milaka pieza, estetikoki, artistikoki eta historikoki ikusgarriak eta oso bereziak direnak. Induskatutako azalera txikia izan arren, urteetan lan horiek eman duten emaitza oso oparoa izan da eta esan dezakegu aztarnategia ustez txikia izanda ere, berreskuratutako aztarnak eta gaiek antza dutela inguruko aztarnategi handienetan topatutakoekin.

Aizkoltxon egin diren aurkikuntzak konparagarriak dira, beraz, aztarnategi handiagoetan, ospe handiagokoetan, egin diren zenbaitekin. Zer ondorioztatu behar dugu: Aizkoltxoko aztarnategia haien parekoa izan daitekeela ala beharbada aztarnategi handiago horietan topatu den materiala ez dela hain ezohikoa?

Esango nuke bietatik duela. Batetik, aztarnategi handi horiek kobazulo handiak dira, eta historiaurrean, mendeetan zehar, belaunaldi ezberdinen bizitoki edo bilgune izan ziren. Hala, haietan berreskuratutako den aztarna kopurua ikaragarria da, eta alde horretatik Aizkoltxon bi metro koadroko azalera topatu dena ez da inondik inora konparagarria. Hainbeste aztarnaren artean, gainera, gauza bikainak ere agertu dira haietan, bai artearen ikuspuntutik, bai eta suharriak lantzeko teknikei dagokionean ere. Baina badira aztarnategi horietan topatu diren pieza berezi batzuen oso antzekoak Aizkoltxon agertutakoen artean, eta horrek bidea ematen digu pentsatzeko Aizkoltxo izan zitekeela kanpaleku periferiko bat, errekurtsioen esplotaziorako erabilitakoa. Kobazuloaren dimentsioak eta kanpoaldeko harpearen tamaina ikusita, ez du ematen bilgune handia izan zitekeenik, baina garbi dago Aizkoltxo zerbait izan zela historiaurrean. Badago beste kontu bat argitu gabe duguna. Izan zitekeen Aizkoltxo are leku bereziago bat ere. Izan ere, topatu ditugun elementuetako asko haitzak duen arrakala batetik sartuak zeuden, eta ez dakigu horren zergatia. Ez dakigu propio sartu zituzten gehiago erabili behar ez zituztelako, sinismen konturen bategatik egin ote zuten edo guk gaur egun ulertzen ez dugun beste konturen batengatik.

"Aizkoltxo aztarnategia ustez txikia izanda ere, berreskuratutako aztarnak eta gaiek inguruko aztarnategi handienetan topatutakoen antza dute"

Zer da Aizkoltxon topatu dena eta zer informazio ematen du horrek historiaurreko taldeez?

Hasteko, suharri dezente topatu ditugu, eta horiekin adibidez jakin dezakegu zer nolako tresnak egiten zituzten eta zertarako, bai eta nondik mugitzen ziren ere, identifika ditzakegulako tresna horiek egiteko suharriak nondik jasotzen zituzten, Euskal Herriko mapa edo eremu zabalagokoa hartuta. Bestetik, animalien hezurak ere topatu ditugu eta horrekin jakin dezakegu zer motatako animaliak ehizatzen zituzten hemen inguruan eta zertarako erabiltzen zituzten animalia horien hezurretako batzuk. Ikusi dugu erabiltzen zituztela arpoiak, azagaiak, jostorrazak eta beste tresna funtzional batzuk sortzeko, bai eta lepokoak edo apaingarriak egiteko ere, eta horrek sarbidea ematen digu bizitzaren beste dimentsio batzuetara, eta ez soilik praktiko edo funtzionalera -ehiza, etxeko tresnak-, baizik eta dinamika sozialetara eta sinesmenen mundura ere bai.

Zer berezitasun dauka Aizkoltxok orduan?

Bi gauza dauka aipatzekoak. Batetik, kokapena. Madeleine aldiko taldeen aztarnak Iberiar penintsulan, Frantziaren zatirik handienetan eta Europako erdialdean topatu dira, baina hartzen baditugu Kantauriar erlaitza, Pirineoak, Ebro arroa eta Akitania, ikusiko dugu lurralde horiek lotzen dituen bidean kokatzen dela Aizkoltxo, pasabide natural batean. Eta bestetik, aztertzen baditugu Aizkoltxon topatu ditugun aztarnak, eta bereziki, arteari lotutakoak, ikusiko dugu mugikortasun handia zutela garai hartako gizakiek eta informazioa eta objektuak partekatzen zituztela batekoek eta bestekeoek; harremantzen zirela euren artean alegia. Era berean, material horrek guztiak berresten du Kantauriko eta Bizkaiko Golkoko, Mendebaldeko

Prinioetako eta Erdialdeko Pirinioetako aztarnategien arteko lotura estua izan zela.

Aipatu duzu aldaketa batean dagoen mundu baten eraldaketa erakusten digutela Aizkoltxon berreskuratutako aztarnak. Zer esan nahi duzu horrekin?

Hein batean, bi ohituen nahasketa bat erakusten dutela Aizkoltxon topatutako aztarnak: lehenagokoa eta datorrena. Pentsatu behar dugu orain dela 15.000 urteko klima, eta ondorioz, paisaiak ere bai oso ezberdinak zirela. Izoztaro garaia zen (Würm IV izoztarora), itsasoa gaur daukaguna baino hamalau bat kilometro urrutiagora geneukan Mendarotik, eta esteparen antz handiagoa izango zuen orduko hemengo paisaiak. Belartza handiagoak izango ziren, zuhaitz gutxiago, eta animaliak ere ezberdinak izango ziren. Elur oreinak ibiliko ziren gurean, bisonteren bat, zaldiak..., baina ez horrenbeste orein eta basurde. Duela 15.000 bat urtekoak dira Aizkoltxoko aztarnak, eta garai hartan Pleistozenoa, izoztaroen garaia, amaitzen ari zen eta pasatzen ari ginen Kuarternariotik Holozenora, eta orduan bai, gure klimaren antzekoagoa izan zuten. Artearen ikuspuntutik, Aizkoltxon aurkitu diren aztarnetan argi ikusten da aldaketa hori, bai errepresentatzen dituzten gaitan, bai eta animaliak edo bestelako gaiak errepresentatzeko moduan ere. Eta adierazgarria da hori: ikustea Aizkoltxok baduela zeresana klimaren, paisaien eta garaiko taldeen dinamiketan izan ziren aldaketak irudikatzen dituzten orduan. Madeleine aldirian, animalien errepresentazioak naturalistagoak ziren, eta Holozeno hasierako joera sinplifikatuagoa zen, eskematikoagoa. Aizkoltxon topatutako arte piezetan gai naturalista, eskematiko eta konbentzionalen nahasketa oso esanguratsua da.

Zertan ari zarete orain Aizkoltxon?

Josean Mujikaren zuzendaritzapean eta Munibe arkeologia taldekoen lanari esker hainbat material atera dira azkeneko urteotan Aizkoltxon, eta orain, material horiek emandako informazio guztia ordenatzen eta idazten ari gara, Akademiarako eta bestela. Landa lanean barik laborategiko ikerketa-prozesuan gaude orain. Garbi dagoena da, hala ere, gaur arteko indusketetan izan ditugun

emaitzak ikusita, litekeena dela etorkizunean aurkikuntza politak izatea Aizkoltxon, eta oro har Mendaro osoan, bai eta orain lanean ari diren Agarre kobazuloan, bai eta oraindik berrikusi gabe dauden kobazuloetan edota topatu daitezkeen berrietan ere. Ziur nago sorpresak izango ditugula Mendaron, edo behintzat ikerketa berri batzuk uztartzeko aukera. ■

AIZKOLTXOKO PIEZA IZARRA: MAKILA ZULATUA



Aizkoltxon topatu den piezarik ikusgarriena Goi-Madeleine aldiriko [duela 16.500-13.300 urtekoa] lau zulodun makila apaindu bat da, 2014ko kanpainan topatu zutena. Orein adar zabal eta lodi baten gainean eginga dago makila, lau zulo ditu eta oso apaindua dago, irudi figuratibo eta ez figuratiboekin. Orein baten burua antzeman daiteke batetik, eta zaldiaren, astoaren edo untxiaren familiakoak izan daitezkeen beste animalia batzuk ere ageri dira. Orein adarrak ere baditu grabatuta, aurrez ikusita, eta garai hartarako ez da oso ohikoa oreinak aurrez aurre marraztea. Horrez gain, bestelako zeinu batzuk ere baditu apaindura gisa: marra zuzenak, marra paraleloen multzoak... ohikoagoak direnak garai hartarako.

Tipo honetako erremintak nahikoa ohikoak dira Europa mendebaldean, baina gehienek zulo bat edo bi izaten dituzte. Hiru zulodunak ere topatu dira, gutxi batzuk eta gehienak Akitania inguruan gainera, baina honek lau zulo ditu. Gainera, Aizkoltxoko topatu arteko guztiak Akitanian, Frantzia, topatu zituzten, eta horrek ere egin zuen aparteko pieza.



ENPRESETAN EUSKARAZ

Arlo sozioekonomikoan euskara gehiago erabil dadin lanean dihardute Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak, IMH eta Meka ikastetxeekin batera, eta besteak beste, Lanbide Heziketako ikasleei lan praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen diete. Horretarako, enpresen inplikazioa ere ezinbestekoa da, eta aurten gora egin du praktikak euskaraz egiteko aukera ematen duten enpresen kopuruak. Praktikak euskaraz egitea aukeratu duten ikasleak ere, iazko aldean, gehiago izan dira, eta horietako biren esperientziak jaso ditugu orriotan.

✍️ Ainhoa Andonegi

Elgoibarko arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko batu dira Elgoibarko Udala eta Elgoibarko Izarra, eta Emunen ahokularitzarekin, Lanbide Heziketako IMH eta Meka ikastetxeekin lanean dihardute. Azken urteetan, euren ikasleei enpresetako praktikak euskaraz egiteko aukera eskaini diete, eta aurten gora egin du praktikak euskaraz egin dituzten ikasleen kopuruak. 271 ikaslek egin dituzte aurten praktikak enpresetan (173 izan dira Mekakoak eta 98 IMHkoak), iaz baino %33 gehiagok, eta horietatik 198k egin dituzte euskaraz (Iaz 110 izan ziren). Gaur egungo mapan, beraz, gehiago dira praktikak euskaraz egiten dituzten ikasleak, gaztelaniaz edo elebrietan egiten dituztenak baino: Mekan 173 ikaslek egin dituzte praktikak, eta 60k euskaraz egin dituzte. Ele bietan egin dituzte 49 ikaslek, eta gaztelania hutsean egiteko hautua

egin dute hamabi ikaslek. IMHn, gehiago izan dira gaztelaniaz egin dutenak, baina hala ere, iazkoarekin alderatuta bikoiztu egin da euskara aukeratu dutenen kopurura: IMHko 98 ikaslek egin dituzte praktikak eta horietatik 38k aukeratu dute euskara praktikaldirako hizkuntza moduan (iaz hemeretzi izan ziren).

Enpresei dagokienean, Elgoibarko eta Mendaroko enpresetan egindako praktikak ere gehiago izan dira aurten; 55 guztira (iaz, 17). Mekako 22 ikaslek aukeratu dute Elgoibarko edo Mendaroko enpresaren bat praktikaldirako, eta guztiek, gainera, euskaraz egin dituzte praktikak. IMHko ikasleen artean 33 izan dira Elgoibarren edo Mendaron egin dituztenak praktikak, hamahiruk euskaraz eta hogeik gaztelaniaz. Guztira beraz, 35 izan dira Elgoibarko eta Mendaroko enpresetan euskaraz egindako praktikak, eta iaz hamahiru izan ziren.

EIDER ETURA



"Lan mundua euskalduna izatea positiboa da"

Eider Eturak 21 urte ditu eta Genero berdintasunaren Sustapena goi ziklokoko ikasketak egin ditu Mekan. Ikasketak euskaraz burutu ditu, eta lan praktikak ere euskaraz egin ditu hiru hilabetez, Zabaltzen Sartu elkartearen. Emakume migratuen ahalduntzean aritu da lanean, feminismitik. Bere zeregin nagusia emakume horiei gaztelania irakastea izan da, ahoz zein idatziz, baina irteerak ere egin dituzte, inguruko txokoak eta kultura erakusteko, Elgoibarko zerbitzuen berri emateko... Emakume horiekin harremana gaztelaniaz izan du, baina gainerako langile eta hezitzaileekin euskaraz harreman du: "Zabaltzen Sartun badute euskararekiko konpromisoa, eta Korrika Elgoibartik pasatu zenean emakume migratuekin jaitsi ginen ikustera. Azaldu genien zer zen Korrika, eta saiatu ginen emakume horiek apur bat euskarara ekartzen".

Praktikaldia oso gustura egin du Eturak, eskolan ikasitakoa praktikan ikusteko aukera izan duelako, eta euskaraz egin izana modu positiboan baloratu du. "Ikasketak euskaraz egin ditugu, eta niretzako garrantzitsua izan da praktikak ere euskaraz egin ahal izatea. Euskal Herrian gaude, eta lan mundu euskalduna izatea oso positiboa da".

Datorren urtera begira Unibertsitatera joatea gustatuko litzaioke, Gizarte Hezkuntza ikasketak egitera.

JULEN GARATE



"Enpresako langileen artean euskaraz egiten dute guztia"

Julen Garatek 19 urte ditu, eta IMHn egin ditu Erdi Mailako Mantenu Hidromekanikako ikasketak. Une honetan hiru hilabetez lan praktikaldia amaitu berri du Elgoibarko Hansa-Flex enpresan, eta udan lanean jarraitzeko eskaintza egin diote. Praktikak euskaraz egiteko aukera izan du, eta oso gustura egon da. "Lan mundua nolakoa den ikusteko aukera izan dut, eta gainera, euskaraz, beraz, oso gustura egon naiz. Enpresa txikia da, eta langile gehienak hemen bueltakoak dira; Azkoitia, Azpeitia, Ondarroa... denek euskaraz egiten dute. Enpresa honek euskaraz funtzionatzen du". Enpresak euskarari garrantzia ematen diola iruditua zaio, euskaraz ez dakitenak kenduta, gainerakoek euskaraz egiten dutelako beraien artean.

Eskolan muntaian aritu da bereziki, eta enpresan ez da horrenbeste aritu muntaian, baina beste lan pila bat ikusi ditu, eta oso aberasgarria iruditua zaio: "Denetik egitea tokatu zait, lantaldeko komodina izan naiz, eta asko ikasi dut. Harreman ona izan dut langileekin eta pozik geratu naiz".

Udan enpresan bertan lan egingo du, baina aurrera begira ikasten jarraitzeko asmoa dauka, eta Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat egingo du.

Elgoibar Ikastolaren Eguna ospatu dute

Elgoibar Ikastolak jai-giroan eman dio amaiera aurtengo ikasturteari, joan zen zapatuan ospatu zuten Ikastolaren Egunarekin. Trikitilariekin kalejiran joan ziren ikasle zein gurasoak ikastetxera, eta han prest zituzten umeentzako jolasak. Eskulanak egiteko eta aurpegiak margotzeko txokoak ere izan zituzten. Eguerdi partean euria hasi zuen, eta festak erdiko aretoan izan zuen segida. Finalista Eguneko dominak banatu zituen Morkaikok, dantza lehiaketa egin zuten eta Kitzikiren erromeriarekin amaitu zuten eguna.



Filmetako soinu bandetan oinarritutako koro kontzertua egin dute Inazio Bereziartua musika eskolakoek



Inazio Bereziartua musika eskolakoek koro jaialdia egin zuten maiatzaren 30ean Elgoibarko Herriko Antzokian, eta aretoa txiki geratu zen. Koroko lehenengo eta bigarren mailako ikasleek eta Korunahia eta Gaztenahiako kideek hartu zuten parte Silvia Hernandezen zuzendaritzapean. Betsua txarangak eta musika eskolako beste hainbat musikari ere aritu ziren euren lanean, Aitor Novak zuzenduta.

Filmetako soinu bandetan oinarritu zuten jaialdia, eta *La Sirenita*, *Mamma Mia*, *Grease* edota *Vaiana* filmetako kantak interpretatu zituzten. Amaieran, *El Rey León* filmako hainbat kanta abestu zituzten denek elkarrekin.

Emanaldiko tarte batean Silvia Hernandezek hartu zuen hitza, eta Aitor Novari prestatutako sorpresa aurkeztu zuen. Datorren urtean ez da Inazio Bereziartua musika eskolan izango Nova, eta bertso bat kantatu zioten, agur esateko. Hunkituta geratu zen musika eskolako zuzendari eta saxofoi irakasle dena, eta negar malkotan eskerrak eman zizkien guztiei. Astebete lehenago, Musika Gaua emanaldian ere eskerrak eman zizkioten Novari. Bi emanaldietako bideoak barren.eus atarian dituzue ikusgai.

Datorren astean talde instrumentalen eta instrumentu desberdinetako ikasleen emanaldiak egingo dituzte, eta ekainaren 14an euskal dantzako ikasleen jaialdia izango da Kalegoen plazan.

Herriko Antzokiko langileek greba eten dute, baina Udalari eskatu diote enpresari hitzarmena betearazteko

Apirilaren 11n hasi zuten greba Herriko Antzokia kudeatzen duen Aisilan XXI enpresarentzat lan egiten duten sei langileek. Elgoibarko Udalak zerbitzua emateko azpikontrataturako enpresa da Aisilan XXI. Aurrez ere egin izan duten moduan, prentsaurrekoan gogora ekarri zuten hainbat bilera eskaera egin dizkietela bai Udalari eta baita enpresari ere, baina ez dutela horiengandik "inolako" berririk jaso. Aitzitik, greban dauden langileak banantzeko ahaleginean jardutea leporatu diote langileek Udalari, "sindikatuarekin gatazkak sortuz". Udal arduradunek prentsan zein udalbatzarraren bilkuran esandakoak ez direla egia diote langileek. "Langileen eskaerak beti entzun izan dituztela diote eta 2023tik 2024ra diru partida bikoiztu egin dutela. Berrito diogu, 2012ko soldatekin jarraitzen dugu, bizitzaren prezioa %25 igo den arren. Non dago orduan diru hori?", galdetu zuten.

Udal Gobernuaren eta enpresaren aldetik presio handiak jasan dituztela salatzearekin batera, irtenbide bat topatzeko aukera berri bat eman nahi dietela azaldu zuten, eta horretarako greba etetea erabaki dutela, "irtenbide bat topatu, eta bai ala bai sinatutakoa bete dadin". Greba eten arren, argi laga nahi izan zuten euren lan-baldintzak hobetzearen alde hasitako borroka ez dela amaitu. Prentsaurrekoko bideoa ikusgai duzue *barren.eus*-en.

Udalak 'desengainua' sentitu du

Elgoibarko Udalak pozik hartu du langileek greba eten izana, baina era berean, "desengainua"



sentitu du, langileek prentsaurrekoan esandakoen aurrean. Udalak ezeztatu egin ditu bilera eskaerei ez diela erantzun dioten baieztapenak. Esan dute etengabeko harremana izan dutela inplikaturako alderdi guztiekin, eta eskatutako bilera guztietan parte hartu dutela. Horrez gain, azken topaketa Udalak berak eskatuta egin zela ziurtatu dute: "Joan zen astean, Udala askotan saiatu zen langileen ordezkariekin harremanetan jartzen, eta ekainaren 3ra arte, ez zuten erantzun. Bilera formala eskatzean, langileek hitzordua eskaini dute hemendik hiru asterako. Udalak harriduraz hartu du hori, gobernu-taldearen proposamena aste honetan bertan batzea baitzen". Elgoibarko Udalak elkarrizketarako eta guztiontzat onuragarriak diren konponbideak bilatzeko konpromisoa hartu duela berretsi du: "Horren erakusgarri da 2023an 60.000 euroko partida bat bideratu zela Herriko Antzokira, eta 2024an kopuru hori 120.165 eurora bikoiztu dela lan-baldintzak hobetzeko". Udalak lanean jarraituko duela adierazi du, Herriko Antzokian lan giro bidezkoa eta errespetuzkoa bermatzeko.

Anarirekin solasean Sotoan

Kultur Etxeko sotoa goraino bete zen asteazkenean Anari kantari azkoitiarraren elkarrizketa-musikatua entzuteko. Ane Astiazaran elgoibartarrak gidatu zuen elkarrizketa, eta berak egindako galdera sakonei erantzun zien Anarik. Ez zen, baina, dena hitza izan, eta, bere ibilbideko bospasei kantu ere kantatu zituen, gitarrarekin lagunduta. EME-k (Elgoibarko Musikarien Elkarte) antolatu zuen ekimena, eta datorren astean Ane Astiazaranek BARRENentzat prestatutako kronika argitaratuko dugu, bideo-irudiekin batera.



'Elgoibartik mundura' egitasmoa aurkeztuko dute martitzenean Aita Agirre Kulturgunean

Ekainaren 11n aurkeztuko dute *Elgoibartik Mundura* egitasmoa, 11:00etan, Aita Agirre Kulturgunean. *Elgoibartik Mundura* ekimena Elgoibarko ikastetxe eta elkarteei haien webguneak sortzen laguntzeko ekimena da. STEAM bokazioak (zientzia, teknologia, ingeniari-tza, arteak eta matematikak uztatzen dituen) sustatu nahi ditu, eta baita euskararen erabilera ere arlo honetan. Azkenik, Interneteko .EUS domeinuaren ikusgarritasuna ere handitu nahi da. Ekimenarekin bat egin dutenek kosturik gabe garatuko dituzte webgune berriak, eta, gainera, doan izango dituzte domeinua eta webgunea gordetzeko hosting-a lehenengo urtean. Ekimenaren sustatzaileak Elgoibarko Udala, PUNTUEUS fundazioa, Elgoibarko Izarra eta herriko ikastetxeak dira.

Aurkezpen ekitaldia Lorea Argaratek (Bilbo, 1990) gidatuko du. Zientzialaria, dibulgatzailea eta sortzailea da. Ikasketaz Telekomunikazio



ingenieria da, musika elektronikoa jorratzeko hainbat proiektutan parte hartu du eta dibulgazio zientifikoan aritzen da. TAZEBAEZeko ekintzailea ere bada. Herriko ikastetxeetako ikasleek elkarreentzat sortu dituzten web guneak aurkeztuko dira, eta amaieran DJ saioa eskainiko du Argaratek.

Sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa



Elgoibarko Udalak sanbartolomeetako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorako edonork har dezake parte. Teknika librea izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, etab.) eta lanak euskarri zurrunean aurkeztuko dira. Lanen tamaina 225 mm x 225 mm-koa izango da, eta 300 hazbeteko bereizmena izango du. Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu. Ezinbestekoa izango da testu hau agertzea: *Elgoibar, San Bartolome jaiak, 2024*. Saria 800 eurokoa izango da eta proposamenak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 21ean amaituko da, 13:00etan. Lanak Aita Agirre kultur etxean aurkeztu behar dira.

San Antonio Eguna ospatuko dute Urruzunon hilaren 13an

San Antonio Eguna ospatuko dute eguenean Urruzuno auzoan. Meza egingo dute 11:00etan, eta segidan hamaiketakoa. Eguerdirako auzotarren bazkaria antolatu dute, eta arduradunek izena emateko eskatu dute, zenbaki honetara deituta: 639 101 757.

Euskara ikastaroak, udan, Debabe Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak C1 maila lortzeko ikastaroa eskainiko du udan. Matrikula ekainaren 19ra arte egongo da irekita. Informazio gehiago 943 742 731 telefonoan edo Udal Euskaltegian bertan (Aita Agirre Plaza, 3, 3.solairua).

Nino Bravoren azalean sartuko da Serafin Zubiri gaur gauean, Elgoibarko Udal Musika Bandarekin

Azken urteotako ohiturari jarraituz, kalera irtengo da gaur Elgoibarko Udal Musika Banda. Herriko Antzokiko oholtza alde batera utzi, eta Kalegoen plazan emango dute kontzertua gaur gauean, eta ez edonolako kontzertua gainera. Kontzertu berezia izango da. Serafin Zubiri musikari nafarra gonbidatu dute, eta Nino Bravo zenaren azalean sartuko da, haren kantarik ezagunenak interpretatzeko. 22:30ean hasiko da saioa.

Aurreko edizioetan Celtas Cortos taldearekin ere jo izan dute, rock gaua egin zuten, gospel talde batekin ere eman zuten kontzertua eta, iaz, oso goian jarri zuten langa Queen Gauarekin. Hala ere, gaur, dena ematera irtengo direla azaldu gu Gorka Mujika Udal Musika Bandako zuzendariak: "Kontzertu oso berezia izaten da hau guretzat. Herriarri zerbait desberdina eskaini nahi izaten diogu, eta aurtengoa ere handia izango da. Lan handia egin dugu emanaldia prestatzeko, eta nik uste dut jendea gustatuko zaiola".

Serafin Zubiri musikari ezaguna da, bereziki bere ahotsagatik. Nino Bravoren omenezko musika-bira egiten dihardu, eta abesti horiek bandakoak lagun dituela kantatuko ditu gaur. Iñaki Urkizu Bilboko Musika Bandako zuzendariak moldatu ditu kantak bandarako, eta hamabost bat pieza prestatu dituzte guztira. "Serafin sekulako artista da. Ikustekoa da itsua izanda nola moldatzen den oholtza gainean, eta nola jotzen duen pianoa. Izugarria da", esan du Gorka Mujikak. Aspalditik dute lagun Zubiri Bandan, eta iazko Santa Zezilia Eguneako kontzertura ere gonbidatu zuten. "Gaur gauean eskainiko dugunaren aurrerapen modukoa izan zen kontzertu hura, eta Herriko Antzokia kantuan jarri zuen. Gaurkoa ere handia izango da".

Elgoibarko Udal Musika Bandak arrakasta handia dauka Elgoibarren, eta hori ondo eginiko lanaren emaitza dela uste du Mujikak: "Ordu asko eskaintzen dizkiogu bandari, eta kontzertuak mimos prestatzen ditugu. Txomin Mujikaren aurkezpenei esker saioak oso entretenigarriak izaten dira, eta normalean, kontzertu batera bertzen denak, errepikatu egiten du". Elgoibar



kultur arloan, eta bereziki, musikan aberatsa dela nabarmendu du zuzendariak: "Sekulako Udal Musika Banda daukagu Elgoibarren. Kide guztiak lagun onak dira, pertsona demasak, eta esango nuke musikari gisa are hobekak direla. Gure artean giro oso ona daukagu, eta hori kontzertuetan ere transmititzen dugu. Igarri egiten da hori". Bandaz gain, musika eskolara egiten duen lana ere goraipatu du: "Kalitatezko musikari pila bat ditugu Elgoibarren, eta azkenaldian talde asko sortu dira. Musika arloan osasuntsu gaude". (🎤 Joserra Cabrera)

Alcorta Kopako txapeldun da, eta Malape txapeldunorde

Zaleen aurrean agurtu dute denboraldia Sanloko bi talde nagusiek, eta ez nolana gainera, Kopako tituluak jokoan baitzituzten zapatuan Olaizaga kiroldegian jokatu zituzten denboraldiko azken partidetan. Gizonzkoen senior taldea kantxaratu zen lehenik: zapatu eguerdian jokatu zuten finala, Usurbilen aurka. Etxeko taldea gailendu zen hiru goleko aldearekin, 23-20ko emaitzarekin. Zapatu arratsaldean jokatu zuen Malapek Kopako finala. Eibarko taldea izan zuten aurkari eta armaginek irabazi zuten derbi kutsuko finala, 24-28ko emaitzarekin.



Liga irabazita, agur hobegorik ezin

Espainiako Superkopa eta Kopa irabazi ostean, liga txapelketa ere irabazi du Super Amara Bera Bera taldeak, denboraldi aparta borobilduz. Finalean Atticgo BM Elx izan zuten aurkari. Maiatzaren 29an Gaska kiroldegian jokatu zuten joaneko neurketan 30-26 gailendu ziren donostiarrek. Zapatuan jokatu zuten itzulerakoa, Elxen, eta 27na berdindu zuten. Emaitza horrekin Bera Berak eskuratu du titulua, ligan lortzen duen bederatzigarren garaikurra. Era honetan, June Loidik modu ezin hobean bukatu du Bera Bera taldean egin duen hiru denboralditako ibilbidea. Bere kirol ibilbideko etapa "polit" bati amaiera eman diola adierazi du, eta bide berriak urratzeko ilusioz eta gogoz dagoela. Xixongo La



Calzada taldean jokatuko du aurrerantzean. Bera Berarekin egin duen ibilbidean sei titulu eskuratu ditu Loidik: bi Liga (20-21 eta 23-24), bi Kopa (23 eta 24) eta bi Superkopa (2022 eta 2023an). Defentsako lanean nabarmendu bada ere, 113 gol sartu ditu hiru denboralditan.

Teo Galdonak Orlandon jokatu duen futbol txapelketan hartuko du parte Realarekin

Alebin mailako futbolarietarako La Liga Promises Santander nazioarteko txapelketa jokatu du Orlandon (Florida, AEB), ekainaren 13tik 15era. Realak ere hartuko du parte torneoan, eta C.D. Elgoibarko alebinen taldeko atezaina den Teo Galdona Palomino (Elgoibar, 2012) deitu du txapelketan parte hartzera. Elgoibarko taldeko jokalaria den arren, teknifikazio saioetan eta txapelketetan parte hartzeko deitu izan du Galdona azken urte eta erdian, eta Orlandora joateko deia jaso du orain. Hamabi talde lehiatuko dira Orlandon, Walt Disney gunean, lau multzotan banatuta. Realakartzelona eta Inter Miami izango ditu aurkari bere multzoan. Lionel Messi izar handiaren egungo taldea da Miamiak eta bere semeetako batek jokatu du alebinen taldean. "Amesten jarrita, Messiren semeak jaurtitako penalti bat



geratzeko aukera izan dezake Teok", dio Teoren aita Koldok. Espainiako Ligako taldeak zale estatubatuarrengana hurbiltzeko helburuarekin antolatzen du txapelketa hau AEBetan, eta baita AEBetako futbolaren hazkundean laguntzeko ere. Lehen bost edizioak New Yorken egin zituzten eta Orlandon azken biak. Azken bi urteetan Atletico Madrileko taldeak gailendu dira.

Arriola ahizpek lehen postua lortu dute Eroskiko taldearekin, enpresen arteko lasterketan

Duela aste batzuk Donostian egin zuten moduan, Bilbon ere jokatu dute enpresen arteko lasterketa. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 186 enpresetako 1.876 antxixikari lehiatu ziren domekan. Gizonezkoenak izan ziren 175 talde, 32 emakumezkoenak eta mixtoak izan ziren ugariak: 262 talde guztira. Lau taldez osatutako waldetan lehiatu ziren antxixikariak. Emakumezkoetan Eroskiko taldea izan zen azkarrena, bigarren urtez jarraian. Ana Isabel Eleno Agustinek, Isabel Serna Arrizabalagak eta Agurtzane eta Pilar Arriola Diez ahizpa elgoibartarrek osatu zuten taldeak 36 minutu eta 46 segundo behar izan zituzten 7,7 kilometroko ibilbidea osatzeko. Ibaizabal ibaiaren ertzetatik aritu ziren saltaka.



Orain arteko txapeldunak lehiatuko dira La Roita erronkaren laugarren edizioan

Aurreko urteetan baino goizago eta puztuago dator aurten La Roita Erronka. Ekainaren 22an jokatuko duten laugarren edizioan txapeldunen artean zein den txapelduna jakitea egongo da jokoan. Iker Odria, Ioritz Leiaristi eta Ion Fernandez izango dira lehiakideak, orain arte jokatuak hiru erronketako irabazleak. Mutrikuko portuan hasiko dute kirol proba, 09:30ean eta 11:15ean egingo dute sari banaketa ekitaldia, Karakate gainean. Han argituko da zein den txapeldunetara txapeldun. Iaz hasitako bidetik, kirol erronka baino gehiago izango da aurtengoa. 300 bat lagunentzako paella jana egingo dute Sigmako aparkalekuan eta egun osoko egitarauarekin jantziko dute kirol erronka: erromeria, poteoa, porra, Mauxitxa txarangarekin kalejira, karropoteoa eta kontzertuak gaztetxean (Kostako Vibes, Jeizy's Tyros, Olgetan eta Alternative Division) antolatu baitituzte.



Kukuprakak taldeak irabazi du bertso-pilota txapelketako partida, Lizaso botilero dutela



Emakumezkoen pilota sustatzen duen Ados enpresak sortutako Udaberri Torneoko bertso-pilota txapelketako finalaurrekoa jokatu zuten Mendaroko Goñati pilotalekuan, joan zen barikuan. Hiruna pilotarik osatutako lau talde aritu dira txapelketan parte hartzen, esku huska eta lau t'erdian, eta pilotarien gidari eta animatzaile lanak bertsolari banak betetzen dute. Mendaron,

Kukuprakak eta Bitxiloreak taldeek jokatu zuten, eta lehenengoentzako izan zen garaipena. Kukupraketan, Ruiz de Infante, Etxekolonea eta Mujika pilotariak aritu ziren pilotan eta Sebastian Lizaso bertsolaria izan zuten botillero. Zapatuan, ekainaren 8an, jokatu dute txapelketako finala Azpeitin. Kukuprakak taldeak Mitxoletak taldearen aurka jokatu du finalean.

Mayi Mujikak irabazi du ultra distantziako Euskal Herriko Txapelketa

Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa jokatu zuten zapatuan Leitzaan, ultra distantziako Euskal Herriko Txapelketa jokoan zela. Inoizko partaidetzarik handiena eduki zuen 2013tik jokatzeko duten lasterketak, 750 lagun hartzaile batu baitziren Leitzaoko plazan, 67 kilometroko (+3.600 metro) ibilbidean lehiazeko. Estreinakoz parte hartu zuen arren, Mayi Mujikak erakustaldia eman zuen emakumezkoetan. Oihana Azkorbebeitia abadiñarrarekin lehia estua eduki zuen elgoibartarrak, baina Lekunberritik Ireber tontorrerako zatian hartu zion aurrea eta lehen postuan gurutzatu zuen helmuga, 07:40:08ko denborarekin. Probako errekorra ondu zuen Mujikak. Minutu eta erdira ailegatu zen helmugara Azkorbebeitia.



Beteranoen artean lehen postua lortu du Iñigo Larizek kilometro bertikalen Espainiako Txapelketan

Iñigo Larizek birritan irabazi zuen kilometro bertikalen Espainiako Txapelketa senior kategorian, 2013an eta 2017an. Hirugarrenegoz irabazi du orain, beteranoetan. Ezkarain jokatu zuten zapatuan Espainiako Mendizale Federazioak antolatzen duen igoera bertikalen Espainiako Txapelketa. Senior gizezkoetan Guillermo Ramos gailendu zen, 47 minutu eta 23 segundoko denborarekin. Alain Santamaria (47:38) eta Arnau Aranda (48:46) sailkatu ziren, hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren postuetan. Iñigo Larizena hamaikagarren denborarik onena izan zen, irabazlearengandik 3:37ra. Elgoibartarrak 51 minututan osatu zuen San Lorenzo (2.270 metro) mendira egin beharreko igoera. Bertikal "luzea eta gogorra" izan zela eta erreferentziarik gabe aritu zela azaldu du: "Nire lasterketa egitera irten naiz, erritmoa hartu eta gora!".

Maite Maiorak laugarren egin du Mozart mendi lasterketan, Austrian

Wolfgang Amadeus Mozart musikariaren jaioterrian, Austriako Salzburgo hirian, jokatu zuten asteburuan Mozart 100 mendi lasterketa, baldintza gogorretan: euria goian behean, temperatura hotzak eta haize indartsua. Gainera, ibilbide lokaztuak are gehiago zaildu zuen proba. Fiona Pascall moldatu zen hobekien

aipaturiko baldintzetara. Britaniarrak 12 ordu eta sei minutuan osatu zuen proba. Claudia Chemielowska poloniarra sailkatu zen bigarren (12:44:42), eta Maryline Nakache frantziarra hirugarren (12:52:32). Maite Maiora laugarren postuan helmugaratu zen, 13:10:55eko denborarekin.

LANA**Eskaintza**

Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun osoz lan egiteko pertsona bat behar du, ekaina bukaeran edo uztaila hasieran hasteko. Gidabaimena ezinbestekoa da. CV bidaltzeko: hornikuntza@gmail.com

Eskaerak

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. **611 215 176**

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, eta etxeko lanetan aritzeko ere prest nago. Sara dut izena. **604 855 097**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, orduka, etxeko langile moduan edo gauzez. Esperientzia handia. **632 229 972**

Garbiketa lanetarako prest nago, orduka. Adinekoak ere zainduko nituzke, arratsaldez. Esperientzia handia eta erreferentzi onak ditut. **632 721 342**

Adinekoak zainduko nituzke, ahal dela goizez. Esperientzia handia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. **638 857 100**

Adinekoak zainduko nituzke gauzez, ospitaleetan, oporraldian nahiz bestela. Orduka lan egiteko prest. **631 425 686**

Garazi naiz, Magisteritza ikasten ari den 20 urteko neska. Udan haurrak zainduko nituzke. Ordu-tegi malgua. **644 269 968**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia. **643 708 616**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Titulu soziosanitarioa daukat. **624 828 670**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. Astelehenetik igandera lan egiteko prest. **641 756 213**

Gizon arduratsua, lanerako gogotsu. Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. **632 708 954**

Adineko gizonetakoak zaintzeko prest nago. Mudantza lanak ere egiten ditut. **647 554 386**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Gauzez ere bai, etxean zein ospitalean. Erizaina naiz. Titulu soziosanitarioa daukat eta esperientzia. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. **611 306 391**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, astelehenetik ostiralera, eta asteburuetan, goizez edo gauzez. Titulu soziosanitarioa daukat. **631 020 169**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, gauzez ere bai. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **600 082 254**

Uztaitetik aurrera umeak zaintzeko prest nago. **688 713 497**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. **631 584 186**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. **631 521 351**

administradores

Consejo Universitario de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enkainatzaileak
Lanaldi Komunitarioa



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

72 etxez osatutako bloke batean, lehendakariak aspaldi aurkeztu zuen eguzki-plakak instalatzeko proiektua. Jabeen Batzarra antolatu zen gaia lantzeko, eta oso jabe gutxiak parte hartu zuten. Bertaratutakoek ontzat eman zuten proposamena. Garrantzi horretako gaiak jabe gutxi batzuek adostu ditzakete?


Legeak energia-hornidura berriak eskuratzeari buruzko erabakiak hartzeko modua arautzen du. Zehazki ezartzen du erabaki horiek jabe guztien herenak hartu ahal izango dituztela, batzarrera joan edo ez, eta partaidetza-kuotetan portzentaje bera izatea. Bertaratu ez direnek akta jakinarazten den egunetik hasita hogeita hamar eguneko epea izango dute desadostasuna adierazteko. Jabeen isiltasuna, akordioaren alde hartzen da. Zehaztu behar dugu komunitateak ezingo dituela behartu aldeko botoa eman ez duten jabeekideak instalazio edo mantentze gastuak ordaintzera. Aurrerago zerbitzu hori eskuratu nahi badute, horretarako aukera izango dute, baldin eta beren garaian zegokiena gehi legezko interesak ordaintzen badituzte.

Ondorioa: proposamen horrek jabeen eta partaidetza-kuoten hiru bostenen babesaren lortuko balu, jabe guztiak komunitatearen erabakiari lotuta geratuko lirakekeela, haien botoa edozein izanda ere. Guztiak ordaindu beharko dituzte kontzeptu horren ondoriozko kuotak. Instalazio hori elementu komun bihurtuko da, eta komunitateari dagokio mantentzea.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Kilian**, atzo 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez!



Zorionak, **Manex**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, arreba Aneren partez.



Zorionak, **Jon**, igandean 9 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxeko denon partez!

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

RPS 181/19



KONTSULTATEGIA

Aho-hortzen osasunaren eta osasun orokorraren arteko lotura

Pertsona asko horretaz jabetzen ez badira ere, aho-hortzen osasunak eta osasun orokorrak lotura estua dute. Hartz-osasunaren prebentzioak gaixotasun orokorrak prebenitu ditzake, eta odontologia-azterketek giza gorputzeko beste atal batzuetako gaixotasunak detekta ditzakete.

Aho-hortzen osasunak, osasun orokorrean eragina izateko arrazoia, batez ere, gure ahoan dauden bakterioak odol-uholdera pasa daitezkeela da, eta giza gorputzaren beste sistema batzuei eragiten dien gaixotasunen bat eragin dezaketela.



Frogatuta dago, adibidez, osasun periodontalak lotura duela bihotzeko gaixotasunekin: hortzoietako gaixotasun kronikoak bihotzeko gaixotasunak garatzen lagun dezakeela, diabetesarekin ere harreman estua dagoela eta era berean, giltzurruneko gaixotasun batzuk ere antzeman daitezkeela.

Guzti honengatik gubxienez urtean behin odontologia-azterketa bat egitea eta aho-hortzen higiena etengabe zaintzea lagungarria izan daiteke ahotik eta hortzetatik haratagoko gaixotasunak prebenitzeko eta saihesteko. Bisitatu dentista eta zure gorputz osoa zainduko duzu!

ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

7 BARIKUA

19:00 Arkeologiari buruzko hitzaldia. EHUKo unibertsitateak, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatuta, udaletxeko Udalbatza aretoan.

19:00 Ameikutz musika eskolako perkusio irakasleen ikasturte amaierako jaialdia. San Agustin kulturgunean.

20:30 'Mendaro dantzan' emanaldia. Kaxa taldeko Mendaroko ikasleak irtengo dira dantzara. Goñati frontoian.

22:30 Kontzertua: Udal Musika Banda, Serafin Zubirirekin, Nino Bravo abeslariaren omenez. Kalegoen plazan.

8 ZAPATUA

18:00 Goazen Karaokea, Mendaron. Ikastolako patioan.

9 DOMEKA

10:00 Bisita gidatua: Dolmenen ibilbidea. Euskaraz. Izena emateko: *info@begi-bistan.com* edo 657 79 46 77.

10:30-14:00 / 16:00- 19:30 Mahai-jokoen jardunaldia eta Catan txapelketa, Mendaron, frontoian. 657 79 46 77.

10 ASTELEHENA

19:00 Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalen kurtso amaierako kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

19:00 Menopausiari buruzko hitzaldia, Mendaron. Amaia Vazquez Eguzkitza psikologo eta sexologoak emango du, Udaletxeko udalbatza aretoan.

11 MARTITZENA

11:00 'Elgoibartik Mundura' egitasmoaren aurkezpena Aita Agirre Kulturgunean.

19:00 Mendaroko Ameikutz musika eskolako piano eta biolin ikasleen kurtso amaierako emanaldia. San Agustin kulturgunean.

13 EGUENA

11:00 San Antonio Eguna, Urruzuno auzoan. Meza, eta ondoren, hamaiketako. Eguerdian auzotarren bazkaria.

19:00 Mendaroko Ameikutz musika eskolako txistu ikasleen kurtso amaierako emanaldia. San Agustin kulturgunean.

19:30 Inazio Bereziartua musika eskolako kurtso bukaerako kontzertua. Herriko Antzokian.

14 BARIKUA

19:00 Txirristaka bertsolariari buruzko saio berezia. Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak arituko dira bertsotan, kalez kale.

19:00 Inazio Bereziartua dantza eskolako ikasturte amaierako jaialdia. Kalegoen plazan.



LAGUNAK
colchonería textil hogar

Atsedernaldi benetan indarberritzailea izateko...

Tempur!

Era askotako modeloak ditugu; bisita gaitzazu



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Eta, Debabarrenean zer?

Txindurri Eguna, asteburuan, Ermuan

Ermuan Txindurri eguna ospatuko dute bihar eta etzi, eta egitarau zabala prestatu dute. Bihar eguerdian hasiko dituzte ekintzak 12:00etan dantza poteoarekin eta 19:00etan Javi



Alberdiren omenezko ekitaldia egingo dute. Iluntzean Fan&Go taldearekin erromeria, eta 22:00etan Larraindantza. Domekan, berriz, umeen kalejirak hasiko ditu ekitaldiak 11:00etan. Dantza erakustaldia izango da 12:30ean eta gero herri bazkaria. 17:00etan Kittu taldearekin erromeria.

2024ko botika ordutegiak:
09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

EKAINA

7 BARIKUA	Garitaonandia
8 ZAPATUA	Arriola
9 DOMEKA	Arriola
10 ASTELEHENA	■ Fernandez
11 MARTITZENA	Yudego
12 EGUAZTENA	■ Oruesagasti
13 EGUENA	Barrenetxea
14 BARIKUA	■ Ibañez

2024 urte guztian, gauzez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Ardurarenetik ostialdean: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

leapoindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162

MEKANOSA
Erosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ☑ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ☑ MULTIKOPISTAK
- ☑ FOTOKOPIAGAILUAK
- ☑ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ☑ MARRAZKETA MATERIALA
- ☑ INFORMATIKA
- ☑ FAXA

EXPRESS ESKAINTZAK!

75UT81006LA LG LED TELEBISTA

LG UHD AI ThinQ
UT81

- 4K UHD
- Smart webOS 24
- Dolby digital plus
- HDR 10 Pro
- Gaming funtzioak
- Bateragarritasuna: Apple Home Kit, Airplay, Chromecast, Google, Alexa, ThinQ, mTER
- Ahotsaren bidezko kontrola
- 4KA5gEN7 prozesadore adimenduna, IArekin

1199 €

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Aste honetako erretratu zaharra Gloria Canalesek ekarri du BARRENERA, eta bere kalkuluen arabera 1942. urte ingurukoa da, 36ko Gerra amaitu eta gutxira ateratakoa. Argazkiak balio sentimental handia dauka, izan ere, Mari Tere Etxanizek eman zion Gloriarri hil aurretxoan, BARRENEK publikatzeko, eta haren omenez ekarri du argazkia erredakziora. Barrutia jabetzea zenaren atzeko aldean aterata dago argazkia, eta atsedena hartzen dauden jabetzeko lau langile ageri dira bertan.

Ezkerretik eskumara: Aranbarri (Zukuzu baserrikoa), Juani Barrutia (†), Visitación Elorza (†), eta Mari Tere Etxaniz.



Josefa Lariz Muguruza

2024ko ekainaren 2an hil zen, 94 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Eskerrik asko San Lazaro egoitzako langile eta egoiliarrei gure ama famili giroan zaintzeagatik.






Javier Arrizabalaga Ansola

"Belarreta"

2024ko ekainaren 1ean hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izar bat distiratu da zeruan
bide ilunak argituko dituena
betirako babestuko gaituena
etengabe gure bihotzetan
inoiz itzaliko ez dena.***

Etxekoak



Javier Arrizabalaga Ansola

"Belarreta"

2024ko ekainaren 1ean hil zen 78 urte zituela.

***Zu bezalako pertsonak
behar ditu munduak.
Zu bezalako lagunak
behar ditugu alboan.
Eskerrik asko, Javier.***

Betiko kuadrilla



III. URTEURRENA

Francisco Egea Garcia

2021eko ekainaren 11n hil zen, 70 urte zituela.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Familia

Sua, ura, natura eta...
GU, urteko egunik luzeena ospatzeko

EKIGAIN JAIA

Ekainak 21, ostirala

EGITARUA:

- 19:00** Maalan elkartuko gara. (*1)
20:30 Afari-merienda, norberak etxetik dakarrena. Sallobenteko elkartea zabalik egongo da edaria erosi nahi duenarentzat.
21:00 Ongietorri ekitaldia.
21:00 Herriko musikarien kantaldia.
Ondoren, Ekigain kantua Jarraian, suaren gainetik salto egiteko aukera egongo da.
23:00 Etxera buelta. (*2)

OHARRAK:

- (*1) Oinez joateko aukerarik ez duzuenontzat, 20:00etan izango da hitzordua Sallobente-Ermuaranen.
(*2) Bueltarako frontala edo kopeta-argia eramatea komeni da.



Antolatzailea:

Babeslea:

